

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

5410

EBAZPENA, 2013ko urriaren 29koa, Arrantza eta Akuikulturako zuzendariarena, aisialdirako ontziak gobernatzeko titulazioak lortzeko 2014ko azterketa arruntetarako deialdia egiteko dena.

Uretako eta urpeko kiroletako irakaskuntzako funtzio eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzearen inguruan Eskualdaketen Batzorde Mistoak 1994ko maiatzaren 31n hartu zuen erabakia onesten duen uztailaren 12ko 290/1994 Dekretuan ezarritakoarekin bat etorriz, zuzendaritza honek, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 190/2013 Dekretuaren 21. artikulua ematen dizkion ahalmenak erabiliz, honako hau

EBAZTEN DU:

Jarraian adieraziko diren tituluak lortzeko 2014an egin beharreko teoriaren eta praktikaren azterketetarako deialdiak egitea:

Teoriaren azterketak:

1. deialdia.– 2014ko otsailaren 3tik aurrera, honako titulazio hauek eskuratzeko:

- a) Oinarrizko nabigazioko patroia.
- b) Aisialdirako ontziko patroia.
- c) Yateko patroia.
- d) Yateko kapitaina.

2. deialdia.– 2014ko maiatzaren 12etik aurrera, honako titulazio hauek eskuratzeko:

- a) Oinarrizko nabigazioko patroia.
- b) Aisialdirako ontziko patroia.
- c) Yateko patroia.
- d) Yateko kapitaina.

e) Uretako motoko patroia.

3. deialdia.– 2014ko irailaren 22tik aurrera, honako titulazio hauek eskuratzeko:

- a) Oinarrizko nabigazioko patroia.
- b) Aisialdirako ontziko patroia.
- c) Yateko patroia.
- d) Yateko kapitaina.

4. deialdia.– 2014ko azaroaren 19tik aurrera, honako titulazio hauek eskuratzeko:

- a) Oinarrizko nabigazioko patroia.

b) Aisialdirako ontziko patroia.

c) Yateko patroia.

d) Yateko kapitaina.

e) Uretako motoko patroia.

Praktikaren azterketak:

Deialdi bakarra.– 2014ko ekainaren 16tik aurrera, honako titulazio hauek eskuratzeko:

a) Oinarrizko nabigazioko patroia.

b) Aisialdirako ontziko patroia.

c) Yateko patroia.

d) Yateko kapitaina.

Azterketendata zehatzak Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailaren (www.nasdap.net) web orrian iragarriko dira azterketak egin baino aste bete lehenago.

Deialdiak honako hauen arabera egingo dira:

DEIALDIAREN OINARRIAK

Lehenengoa.– 1.– Honelaxe egingo dira azterketak:

a) Azterketa teorikoen lehenengo eta hirugarren deialdiak Euskal Herriko Unibertsitateak Portugalen (Bizkaian) daukan Nautika eta Itsasontzi Makinariaren Goi-eskola Teknikoan egingo dira, hortxe bakarrik.

b) Azterketa teorikoen bigarren eta laugarren deialdiak Pasaian (Gipuzkoa) «Blas de Lezo» Pasaiaiko Itsas Arrantza BHI n bakarrik egingo dira.

Nolanahi, azterketa guztiak horretarako eraturako Epaimahaiak ebaluatuko ditu. Epaimahaia eratzeko, ebazpen honen 5. oinarriak xedatutakoa eta otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuak zerbitzuko arrazoiak direla-eta eman beharreko kalte-ordainei buruz xedatutakoa hartu behar da kontuan.

2.– Azterketak indarrean dauden programei lotuko zaizkie, alor honetako arauekin bat etorritik.

3.– Titulazio bakoitzerako praktikaren azterketak bi zati izango ditu: nabigazioaren praktika eta segurtasunaren praktika.

4.– Eskabidea ebazpen honen eranskinetako ereduari aurkeztu behar da.

5.– Eskabidearekin batera, ondoko agiri hauek aurkeztu beharko dira:

– Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia. Eskatzailea adingabea balitz (16 urteak beteta izanik betiere), guraso baten edo tutorearen baimena aurkeztu beharko du, idatziz.

– NANeko argazkiaren neurriko argazki bat (praktikaren azterketarako bakarrik).

– Euskadiko Kutxaren 3035 0010 81 0100051740 kontu-zenbakian azterketa egiteko eskubi-deak ordaindu izanaren jatorrizko ordainagiria. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoetako Buruzko Legearen testu bategina onartzeko irailaren 11ko 1/2007 Lege-

gintzako Dekretuaren arabera egingo da ordainketa, aurrekontuen araudian jasotako eguneratzea aintzat hartuz. Honako hauek dira prezioak:

	Teorikoa	Praktikoa
Oinarrizko nabigaziorako patroia	30,80 €	30,80 €
Aisialdirako ontziko patroia	37,65 €	37,65 €
Yateko patroia	47,90 €	47,90 €
Yateko Kapitaina	58,19 €	58,19 €

– Ziurtagiri medikoa (3200/2007 FOM Aginduaren 18. artikulua arabera). 2010eko urtarilaren 11ko ebazpenak egiaztatuko du: gaitasun psikofisikoa egiaztatzeko inprimaki ofizialean, gidabaimena luzatzeko eskatzen diren baldintzen arabera (ez da azterketa medikorik egin behar, baldin eta edozein titulu atera edo berritu denetik, edo agindu honek arautzen duen gaiaren inguruko edozein azterketa egin denetik bi urte baino gutxiago igaro bada). Indarrean dagoen ibilgailu motordunen gidabaimena lortu edo berritu dutenetik 2 urte baino denbora gutxiago igaro dela egiaztatu nahi duten hiritarrek aipatutako gidabaimenaren kopia bat eta koloreak (batez ere berdea eta gorria) ezberdintzeko duten gaitasuna bermatzen duen ikusmen azterketa, gidarientzako azterketa-zentro baimendu batek egina, aurkeztuko dituzte.

Aurreko paragrafoan aipatutako jatorrizko ziurtagiriaren ordez, ontziratzeko beharrezko diren azterketa medikuen fotokopia kautotua aurkezteko aukera izango da, Itsasoko Gizarte Institutuak emana, edo eskatzaile militarrek nabigatzeko gaitasuna baduela egiaztatzen duten egiaztari medikuak, mediku militarrek emanak.

– Azkena egindako azterketaren ziurtagiria, izangaiek beren burua aurkezten duten titulazioko programaren zati bat jada gainditu badute.

– Aisialdirako ontziko patroia edo titulu hori eskatu izanaren gordekina, yateko patroirako azterketara aurkezteko.

– Yateko patroia edo titulu horren eskabidearen gordekina, yateko kapitainerako azterketara aurkezteko.

6.– Halaber, izangaiek ondoren azaltzen diren dokumentu, material eta tresna eraman beharko dituzte azterketa teorikoetara, aurkezten diren azterketen arabera:

– Oinarrizko nabigaziorako patroia: nortasun agiri nazionala, bizileku-txartela edo pasaporte, boligrafoa eta azterketa egiteko beharrezko den materiala.

– Aisialdirako ontzietarako patroia: nortasun agiri nazionala, bizileku-txartela edo pasaporte, boligrafoa eta nabigazio-kartak erabiltzeko beharrezkoa den materiala; programatutako kalkulagailurik ez da onartuko.

– Yateko patroia: nortasun agiri nazionala, bizileku-txartela edo pasaporte, eta nabigazio-kartak erabiltzeko beharrezkoa den materiala; programatutako kalkulagailurik ez da onartuko.

– Yateko kapitaina: nortasun agiri nazionala, bizileku-txartela edo pasaporte, eta zinematikari eta nabigazio ortodromikoari buruzko ariketak eta astronomiako kalkuluak egiteko beharrezkoa den materiala (2014ko almanakea barne); programatutako kalkulagailurik ez da onartuko. Halaber, ingeleseko azterketan ezingo da hiztegi erabili.

7.– Eskabideak honako epe hauen barruan aurkeztuko dira:

Teoriaren azterketak:

- 1. deialdia, 2014ko otsailean: 2014ko urtarrilaren 13tik 17ra bitartean, biak barne.
- 2. deialdia, 2014ko maiatzean: 2014ko apirilaren 7tik 11ra bitartean, biak barne.
- 3. deialdia, 2014ko urrian: 2014ko irailaren 1etik 5era bitartean, biak barne.
- 4. deialdia, 2014ko azaroan: 2014ko urriaren 27tik 31ra bitartean, biak barne.

Praktikaren azterketak:

Deialdi bakarra, 2014ko ekainean: hona matrikula-eskaerak aurkezteko epea: 2014ko ekainaren 2tik 6ra bitartean.

8.– Azterketetan parte hartzeko eskabideak ondoko administrazio-bulego hauetan aurkeztu ahal izango dira:

a) Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila. Eusko Jaurlaritza. Donostia kalea 1. Vitoria-Gasteiz.

b) «Blas de Lezo» Pasaiaiko Itsas Arrantza BHI. Marinelen kalea 2. Pasai San Pedro (Gipuzkoa).

c) Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Arrantza Antolamenduaren Zerbitzua. Eusko Jaurlaritza. Easo 10. Donostia-San Sebastián.

d) Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun saileko Arrantza Egituren Zerbitzua. Eusko Jaurlaritza. Concha Jeneralaren kalea 23, 2. solairua. Bilbao.

9.– Eskabideak deialdi bakarrerako izango du balioa. Geroko deialdi batean parte hartzeko ezinbestekoa da eskabide berria aurkeztea, bigarren oinarriko 3. puntuan aipatutako dokumentazioarekin batera. Osasun-ziurtagiri hori ez zaie eskatuko titulu zaharragoa (edo alde aurretiko azterketa-ziurtagiria) daukatela frogatzen duten pertsonen, deialdiko egunaren aurreko 2 urteen barruan eskuratu edo berriztatu badute.

10.– Azterketara aurkeztu ezean, matrikula ezin izango da hurrengo deialdi baterako aldatu, ezta azterketako eskubideak itzuli ere, tartean oso arrazoi larriak ez badira behintzat (eta horiek epaimahaiaren aurrean behar bezala frogatzen ez badira).

Bigarrena.– Azterketak baloratuko dituzten epaimahaiak Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Arrantza eta Akuikulturako zuzendariak izendatuko ditu.

Hirugarrena.– Epaimahaietako buruek zentro aztertzaile bakoitzeko iragarki oholean agerraraziko dituzte deialdi eta titulazio guztietako azterketen datak, deialdi honetan ezarritako epeetan, eta lehenengo oinarrian ezarritakoa ere betez. Era berean, behar den denborarekin, zentro bakoitzeko iragarki-oholean, titulazioetako bakoitzaren azterketa-orduak, epaimahai aztertzaileen osaera eta onartuen eta baztertuen zerrendak adieraziko dituzte.

Laugarrena.– Azterketak amaitutakoan, ebazpen honetako bigarren oinarrian adierazitako administrazio-bulegoetako iragarki-oholean jarriko dira ikusgai lortutako kalifikazioen zerrendak. Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun saileko web orrian ere kontsultatu daiteke: www.nasdap.net

2013ko abenduaren 13a, ostirala

Izangaiek egokitzen hartzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiote epaimahaiko buruari, aipaturiko zerrenda horiek jendaurrean jarri eta 5 eguneko epearen barruan. Erreklamazioak behar bezala arrazoitu beharko dira, eta epaimahaiko idazkariari bidali beharko zaizkie, NANaren fotokopiarekin batera. Datu pertsonalak, helbidea eta posta-kodea azaldu beharko dira, idatziz erantzun ahal izateko.

Azterketak 2 urtez gordeko dira, kalifikazioak irmo bihurtzen diren unetik aurrera. Salbuespenez, berrikusi diren azterketak 3 urtez gordeko dira.

Epaimahaietako idazkariak, interesdunek hala eskatuz gero eta epaimahaiko buruak ontzat emanaz gero, ziurtagiri indibidualak emango dituzte yateko patroiei eta yateko kapitain titulueta probak gainditu dituzten izangaientzat, azterketekin beste autonomia-erkidego batean jarraitu nahi badute.

Bosgarrena.– Deialdi honen aurka eta beraren ondoriozko egintza administratibo guztien aurka jo ahal izango da, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritako modu eta kasuetan, 4/1999 Legeak emandako idazkuntzaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko urriaren 29a.

Arrantza eta Akuikulturako zuzendaria,
LEANDRO AZCUE MUGICA.

2013ko abenduaren 13a, ostirala

ERANSKINA

AISIALDIRAKO ONTZIAK GOBERNATZEKO TITULAZIOAK LORTZEKO AZTERKETETAN
PARTE HARTZEKO ESKABIDEA

Izena eta abizenak:

NAN:

Jaioteguna:

Helbidea:

Herria eta posta-kodea:

Lurralde historikoa edo probintzia:

Harremanetarako telefonoa:

1.– Honako titulazio hau lortzeko azterketan parte hartu nahi du:

Azterketa praktikoa
Oinarrizko nabigaziorako patroia
Aisialdirako ontziko patroia
Yateko patroia
Yateko Kapitaina

(ipini «X» bat nahi den aukeran).

2.– Honako leku honetan nahi du azterketa egin:

Pasaiaiko "Blas de Lezo" Arrantza Itsas Eskola. Pasaia San Pedro (Gipuzkoa).
Euskal Herriko Unibertsitatearen Nautika eta Itsasontzi Makinariaren Goi-eskola Teknikoa
(Portugalete, Bizkaian).

(ipini «X» bat nahi den aukeran).

3.– Aurkezten duen dokumentazioa:

- NANeko argazkiaren neurriko argazki bat (praktikaren azterketarako bakarrik).
- NANaren fotokopia.
- Tituluaren edo, hala badagokion, aurreko ziurtagirien fotokopia.
- Ziurtagiri medikoa (3200/2007 FOM Aginduaren 18. artikulua araberakoa). 2010eko urtarrilaren 11ko Ebazpenak egiaztatuko du:

Gaitasun psikofisikoa egiaztatzeko inprimaki ofizialean, gidabaimena luzatzeko eskatzen diren baldintzen arabera

(Ez da inolako osasun-azterketarik egin behar baldin eta bi urte baino gutxiago igaro badira edozein titulu lortu edo berriztatu zenetik edo agindu honen gai den azterketaren bat egin zenetik).

Euskadiko Kutxaren 3035 0010 81 0100051740 kontu-zenbakian azterketa egiteko eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiria.

.....(e)n, 20....koarena.

(Sinadura)

AISIALDIRAKO ONTZIAK GOBERNATZEKO TITULAZIOAK LORTZEKO AZTERKETETAN PARTE HARTZEKO
EPAIMAHAIKO LEHENDAKARIA.

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera, datuak fitxategi automatizatu batean erregistratu ahal izango dira, kudeaketa hobea egiteko asmoz. Datu horiek Sustapen Ministerioari eta beste autonomia-erkidego batzuek jakinarazi ahal izango zaizkie. Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Zerbitzu Zuzendaritzak izango du fitxategiaren ardura (Donostia-San Sebastián kalea 1, 101010, Vitoria-Gasteiz), eta zuzendaritza horren aurrean, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta aurka egiteko eskubideak erabili ahal izango dira, ebazpen horretan xedatutako eran.